

HAUR HEZKUNTZA IRAKURKETA GIDA

EIE Euskal Idazleen Elkartea



Oharra: hemen topatuko dituzue idazleek egindako zenbait gomendio.
Halere, gida honetan agertzen ez den libururik landu nahi baduzu, “Saioak eskatu” atalean aukeragarri izango dituzu beste asko.




**BADAUZKAT NIRE
ZULOTXOAN...
ALAINA AGIRRE**

**IRAKURTZEN IKASTEN
ARI DIRENTZAT**

Alaine Agirrek eta Irirriarrak hitzak eta irudiak elkartu dituzte negua pasatzeko janaria biltzen ari den urtxintxaren istorioa kontatzeko.

(5 urtetik aurrera)



**IZAROREN IZARRA
MARIBEL AIERTZA**

**SENTIMENDUAK,
INGURUNEA LANTZEKO**

Protagonistaren pozak, atsekabeak eta haserreak hondartzan. Gurasoen laguntzaz itsasoa eta bertako izakiak ezagutzen, ulertzen eta maitatzen ikasten du. Bukaeran sekulako lezioa ematen digu.



**IPUIN KONTAKETA
PELLO AÑORGA**

**AHOZKO IPUIN
KONTAKETA**

Ipuin desberdinak kontatzen dira, liburu desberdinetatik abiatuta.

(3-8 urte bitartekoentzat)




**MARI TXIKI
SUPERMERKATUAN
PELLO AÑORGA**

ALBUM ILUSTRATUA

Mari Txikik bi aita ditu: aitatxo Jontxo eta aitatxo Montxo, eta erosketak egitera doaz supermerkatuara. Eta a zer festa! A zer oihuak! (Beste FAMILIA EREDUEZ hitz egiteko proposa izan daiteke liburua)

(3-7 urte)



**UNAXEN AHATEA
PELLO AÑORGA**

**NATURAREN ZIKLOA,
ENPATIA LANTZEKO**

Donald ahatearen istorio samur hunkigarria. Ahatearen ziklo biologiko guztia ederki dago islatua, marrazki ikusgarrien bitartez. Ahots gora kontatzeko oso aproposa.

(4-8 urte)



**GABONETAKO IPUINAK
TXAPELPUNK**

**HAURRENTZAKO
IPUINAK ETA KANTAK**

Euskal Herriko geografian garatzen diren euskarazko ipuinen bilduma da eta magia eta abenturaz beteriko istorioak kontatzen ditu.



IPUIN HUNKIGARRIAK TXAPELPUNK

**HAURRENTZAKO
IPUINAK ETA KANTAK**


Emozioz, abenturaz eta musikalitatez beteriko liburua. Hiru ipuin eta 10 abesti, modu ezberdinean bidaiatu eta ipuinen magia sentiaraziko dizutenak.



LIRU AZERIA ENEKO ETXEGARAI

HAUR LITERATURA


Marixak, baserriko lanak egiten dituen bitartean, lau luma aurkitu ditu lurtean botata. Susmo txarra hartuta oiloak zenbatzen hasi da: Bat, bi, hiru, lau... lau... lau? Baina non demontre dago bosgarren oiloa?



MARIXAREN BASERRIA ENEKO ETXEGARAI

IPUIN KONTAKETA

Eneko Etxegaraik Marixaren istorio kutuna kontatuko digu. Marixa bere baserrian bizi da, abere bihurritz inguratuta, bereak egingo dituztenak, eta txikienekin arratsalde dibertigarri bat pasatzeko aukera emango digutenak.



PUAGGI! **ENEKO ETXEGARAI**

HAUR LITERATURA

Marixa bere baserrian bizi da, animaliez inguratuta. Tortilla goxo-goxoak egin ahal izateko, bost oilo ditu baserriko lurretan aske. Baina... zertan ibili dira oilo hauek??



IPUIN KONTAKETA **MAITE FRANKO**

**AHOZKO IPUIN
KONTAKETA**

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), txipiroi-arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba da. Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, ipuin-kontalaritzaren ozeano barean dabil!



ANIMALETRAK **ANTTON KAZABON**

ALFABETO ILUSTRATUA

Animalien alfabeto dibertigarria

(0-3 urte)

HAUR HEZKUNTZA



HUR, LUR ETA UR
ANTTON KAZABON

INGURUNEA

Basajaun Ama Naturaren zaintzaile.

(6-8 urte)



TXALOPINAK
ANTTON KAZABON

KANTA BERRITUAK


Kantu zahar berrituak



ANIMALIEN IPUINAK
LUPE LEKUONA

IPUIN KONTAKETA

Helburua fantasiaren mundura elkarrekin joatea da eta aldi berean animalien ipuinekin disfrutatzea



NAIAN NEREA LOIOLA

**ANIZTASUNA,
AURRE-IRITZIAK,
BEGIRADA**

Zergatik dago Naian buruz
behera? Zer gertatzen zaio?
Horrela egongo al da beti?
Noiz arte? Noiz jarriko da
normal, besteok bezala?

(HH4 – HH5)

HATSAREN POESIA Olerki Bilduma 2022



HATSAREN POESIA AINARA MAYA

**OLERKIAK ETA POESIA
TAILERRAK**

Askok idazten dute bertan,
eta orotariko poesia aurki
daiteke, baita haurrena ere,
edota poeta gazteen poemak
ere. Euskal Herri osoko nahiz
diasporako 125 poeta.



KATTA BILDUMA MIREN AGUR MEABE

HAUR LITERATURA

Helduek irakurtzeko, hel-
duekin irakurtzeko, eta lehen
irakurleek aurreneko urrat-
sak emateko pentsatutako
irakurgaiak, esaldi labur eta
paragrafo neurtuez josiak,
horiek apailatzeko, gatzak,
errimatxoak, hotsitzak,
abesti zatiak eta koplaren bat
ahaztu gabe.



IZARREN HAUTSA **IXABEL MILLET**

BIZITZAREN ZIKLOA

Izar ederra zen Izartxo, zeruan dirdir alai. Beti lagunekin jolasean, txin txan txon, pozik eta irrifartsu... Eta lurrera iritsen denean, amaren maitasuna aurkituko du. Hautsa gara, bai, izarren hautsa.



MEL ETA EHUN GOIBEL **CASTILLO SUAREZ**

BAKARDADEA / INUITAK / EKINTZAILTZA


Mel izeneko inuit baten istorioa kontatzen digu, ez zuena lagun askorik bere herriko haur bakarra zelako. Melek ez zekien zer zen belarra, zuhaitza edo lorea, ez zituelako inoiz ikusi. Ez zen inoiz bere herritik atera.



PAXKALIN **CASTILLO SUAREZ**

LAGUNTASUNA / ELKARTASUNA / NATURA

Bisoi mutur-zuri bat da Paxkalin, ondoko herrira zirkua datorrela-eta hura ikusi nahi lukeena; hara iristeko errepidea gurutzatu behar, ordea, eta aitak ez dio uzten bakarrik joaten. Nork lagunduko dio Paxkalini?



EBELINA MANDARINA **CASTILLO SUÁREZ**

BELDURRA GAINDITZEA /
LAGUNTASUNA /
IMMIGRAZIOA

Zirku batean bizi den Ebelinak trapezista izan nahi du. Hala ere, ametsa betetzeko beldurra gainditu behar du. Katerinaren eskutik ausartuko da trapeziora igotzen azkenean, zirkuan agertu eta ezagutu berri duen neskari helduta.



KATALINA KONTALARI **IÑAKI ZUBELDIA**

HAUR LITERATURA

Txitxarra zahar bat, kontalaria. Basoko animaliei ipuin ederrak kontatzen dizkie. Istorio entretenigarriak, marrazki zoragarriak.

(5 urtetik aurrera)



TIK BAKARRIK, TAK **IKARAK** **PATXI ZUBIZARRETA**

LEHEN IRAKURLEAK

Bat-batean, amona gaixotu egin dela eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba. Bakarbakarrik. Eta, denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egingo zaie. Tik, bakarrik. Tak, ikarak. Orduan, beldurrari aurre egiteko trikimailuak jarriko dituzte martxan.



**BAKARRIK ETA BUZTAN
GABE
PATXI ZUBIZARRETA**

HAUR LITERATURA

Udako oporrak dira, eta afrikar askoren auto eta furgoneta pila Iparretik Hegora doa. Furgoneta horietako bat gasolindegian geratu da depositua betetzeko. Baina furgonetakoak joan direnean, neskatila bat utzi dute: ahantziriK.
(7-9 urte)